



BIDEGI

Zarautzen AP-8an pantaila akustikoak jartzeko lizitazioa onartu da



Aurrekontua 4.192. 795 €+BEZ da, eta gauzatzeko epea 14 hilabetekoa izango da

Bidegiko administrazio kontseiluak, uztailaren 29an egindako kontseiluan, Zarautzen AP-8an pantaila akustikoak jartzeko eta lizitzeko eraikuntza-proiektua onartu zuen. Aurrekontua 4.192.795+BEZ da, eta kontratua gauzatzeko epea, esleitu ondoren, 14 hilabetekoa izango da.

Proiektuak barne hartzen du autobidearen eskuinaldean, Bilborako norabidean, 1.382 metro linealeko pantaila akustiko fonoxurgatzaileak instalatzea 38,130 eta 39,512 kilometro-puntuen artean. Pantaila berriek bidesari nagusiaren parean dagoen pisatze-baskulatik hasi eta Azkenkaleko auzora arte luzatuko dira. Bi puntu hauetan egun zarataren aurkako pantailak jarriak daude.

Lanak lau zatitan egingo dira. Lehenengoa, 40 metroko luzerakoa, pisatze-baskulatik Itsasmendi azpiko pasabideraino joango da; bigarren zatiak Itsasmendi azpiko pasabidea eta Frantsesbideko gaineko pasabide berria lotuko ditu 460 metro luzerarekin eta hirugarrenak eta luzeenak, 655 metroko luzerakoak, Frantsesbidetik Abendaño azpiko pasabideraino doan aurrealdea beteko du. Azkenik, 105 metroko laugarren zatiak Abendaño eta Azkenkale lotuko ditu, egun bizitegi-eremu horretan dauden pantailekin bat eginez. Pantailek autobidearen paraleloan joango den etengabeko lineal bat osatuko dute. Trazadura osoan 4 metroko altuera izango dute, Itsamendi eta Abendaño azpiko pasaguneetan izan ezik, horiek 2 metrokoak izango baitira. Bi puntu horietan, euste-sistema berriak ere jarriko dira.

Lanak egiteko, galtzadaren kanpoko bazterbidea hartuko da, bi erreien zabalera 3,20 metrora murriztuko da, eta, horri esker, bi erriak irekita mantenduko dira, eta barruko bazterbideak 0,30 metroko zabalera izango du. Horrela, batez beste, egungo plataformatik 3 metro baino gehiagoko zabalera izango duen obra-eremu bat izango da, errietako bat bera ere itxi gabe lan egin ahal izateko.

Eremu horretan 4.200 pertsona inguru daude gaueko ordutegian 55dB baino gehiagoko zarata-mailen eraginpean, eta pantailak jartzeak zarautzarren bizi-kalitatea hobetzen lagunduko du, batez ere Herrikosoro kalearen eta Araba kalearen arteko urbanizazioetan. Eraikin sentikorrek ere badaude hemen: Orokietako ikastetxeetako eraikinak eta Lizardi institutua. Proiektu honek Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako Lurraldeko errepideetako zarataren aurkako ekintza-planean du jatorria.

Zarautz, 2022/07/29



Licitada la instalación de pantallas acústicas en la AP-8 en Zarautz



El presupuesto es de 4.192. 795 €+IVA y el plazo de ejecución será de 14 meses

El consejo de administración de Bidegi celebrado el 29 de julio aprobó el proyecto constructivo para la instalación de pantallas acústicas en la AP-8 en Zarautz y su licitación. El presupuesto es de 4.192.795+IVA y el plazo de ejecución se fija en 14 meses tras su adjudicación.

El proyecto comprende la instalación de pantallas acústicas fonoabsorbentes a lo largo de 1.382 metros lineales en la margen derecha de la autopista en sentido Bilbao entre los puntos kilométricos 38,130 y 39,512. Las nuevas pantallas unirán los tramos ya apantallados desde la báscula de pesaje, a la altura del peaje troncal hasta el grupo residencial Azkenkale.

La ejecución de los trabajos contempla cuatro tramos. El primero, de unos 40 metros de longitud, irá desde la báscula de pesaje hasta el paso inferior de Itsasmendi, El segundo tramo unirá el paso inferior de Itsasmendi con el nuevo paso superior de Frantsesbide a lo largo de 460 metros y el tercero y el más largo, con una longitud de 655 metros cubrirá el frente que va desde Frantsesbide hasta el paso inferior de Abendaño. Por último, el cuarto tramo, de 105 metros unirá Abendaño con Azkenkale y con las pantallas que existen en la actualidad en esta zona residencial. Las pantallas conformarán un lineal continuo paralelo a la autopista con una altura de 4 metros en todo el trazado menos en los pasos inferiores de Itsamendi y Abendaño que serán de 2 metros. En estos dos pasos también se instalarán nuevos sistemas de contención.

Para la realización de los trabajos se ocupará el arcén exterior de la calzada, se reducirá la anchura de los dos carriles a 3,20 metros cada uno lo que permitirá mantener abiertos los dos carriles y el arcén interior pasará a tener 0,30 metros de ancho. De este modo se dispondrá de una zona de obras con una anchura media de algo más de 3 metros sobre la plataforma actual que permitirá trabajar sin cerrar ninguno de los carriles.

En toda esta zona hay unas 4.200 personas que se encuentran expuestas a niveles de ruido de más de 55dB en horario nocturno y la instalación de las pantallas incidirá en la mejora de la calidad de vida de las y los residentes sobre todo en las urbanizaciones comprendidas entre Herrikosoro kalea y Araba kalea. Aquí se ubican también edificaciones sensibles como son los edificios de los centros educativos de Orokieta y el instituto Lizardi. El proyecto tiene su origen en el plan de acción frente al ruido en las carreteras del Territorio elaborado por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Zarautz, 2022/07/29